



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko maiatzaren 7a

58. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Euskararen Adierazle Sistemaren web-orriak Nafarroako Foru Komunitatea Euskal Herriaren barruan sartzeari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (3. or.).
- Galdera, Nafarroako istripu-kopuruaren datuei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (4. or.).
- Galdera, Nafarroako hondakin-uretan COVID-19aren detekzio goiztiarrerako sarea desegin zenez geroztik ezarritako neurriei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (4. or.).
- Galdera, Iruñeko espetxeko presoak txertatzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (5. or.).
- Galdera, Nafarroara bideratutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, Sozietateen gaineko zergari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (6. or.).
- Galdera, “Fondo Arraigo” kapital pribatuko eta partaidetza publikoko finantza-tresna sortzeko aholku-zerbitzua kontratatzeari buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubidean basa fauna hiltzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzuaren konfiguraziorako, berrikuntzarako eta jarraipenerako beharrezkoak diren elementuak eta edukiak sortzeari buruzko aholkuak emateko laguntza teknikoaren kontratuaren 2. fakturari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, parke eolikoaren proiektu berrien eskaerei buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (9. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 2021eko ekitaldian Garapenerako Hezkuntzako eta Sentsibilizazioko proiektuak egiteko dirulaguntzen deialdia (11. or.).
- Ponentzia, Nafarroako kultur jarduera duintzeko, egonkortzeko, areagotzeko eta haren etorkizuna bermatzeko neurriak zehaztu eta adostearren. Barne-funtzionamendurako arauak (22. or.).

—Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko. Lanpostua bete gabe gelditu da (23. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Euskararen Adierazle Sistemaren web-orriak Nafarroako Foru Komunitatea Euskal Herriaren barruan sartzeari buruzkoa.*IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako galdera, Euskararen Adierazle Sistemaren web-orriak Nafarroako Foru Komunitatea Euskal Herriaren barruan sartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Herritarrekiko Harremanetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak honako galdera hau aurkeztu du, Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak batzordean ahoz erantzun dezan:

Euskararen Adierazle Sistemaren web-orriak Nafarroako Foru Komunitatea Euskal Herriaren barruan sartzen du sistematikoki.

Nafarroako Gobernuak inolako neurririk hartu edo hartuko al du gure erkidegoaren errealitate instituzionalarekiko errespetu falta hori zuzentzeko ala, aitzitik, Euskal Herriaren barruan sartzeari ez dela desegokia uste du? Nafarroako Gobernuak ba al du auzi horri buruzko jarrera ofizialik?

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, Nafarroako istripu-kopuruaren datuei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako istripu-kopuruaren datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak zer neurri hartuko du Nafarroako istripu-kopuruaren datuak ikusita?

Iruñean, 2021eko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Nafarroako hondakin-uretan COVID-19aren detekzio goiztiarrerako sarea desegin zenez geroztik ezarritako neurriei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako hondakin-uretan COVID-19aren detekzio goiztiarrerako sarea desegin zenez geroztik ezarritako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak zer neurri berri ezarri du, Nafarroako hondakin-uretan COVID-19aren detekzio goiztiarra egiteko sarea 2020ko urrian desegin zenez geroztik?

Iruñean, 2021eko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Iruñeko espetxeko presoak txertatzeari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Iruñeko espetxeko presoak txertatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasuneko kontseilari Santos Indurain andreak Osasun Batzordean erantzun dezan:

Espetxe Erakundeetako idazkari nagusi Ángel Luis Ortizek agerraldia egin zuen orain dela gutxi Diputatuen Kongresuko Barne Batzordean, eta bertan adierazi zuen EAEko, Kantabriako eta Leongo preso guztiei dagoeneko jarri zaiela koronabirusaren aurkako txertoa. Orobat azaldu zuen Andaluzia, Aragoi, Asturias edo Madrilek ere eskatu dituztela presoan zerrendak, haiei txertoa ahal bezain laster jartzeko.

Kontuan hartuta presoan zaurgarritasuna –sarritan, hainbat patologiarik lotua– eta COVID-19a senideekiko nahiz hurbilekoak direnekiko komunikazioetan eta irten-baimenen ostean nahiz ospitaleetara edo bestelakoetara egindako joan-etorrien ostean gorde beharreko berrogeialdietan izaten ari den inpaktua, honako hau galdetzen diogu Osasun Departamentuari:

• Noiz jarriko zaie txertoa Iruñeko espetxeko presoiei?

Iruñean, 2021eko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Nafarroara bideratutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroara bideratutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

1.- Nafarroak zenbat diru jasoko du, Justiziako azken konferentzia sektorialean onetsitako irizpideei jarraikiz, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia

Planetik, arlo horretako Europako 2021eko laguntzen parte gisa?

2.- Departamentuak zer proiektu bultzatu nahi ditu funts horiekin 2021ean zehar?

3.- Zer aurrekontu eta egutegi dauka proiektu horietako bakoitzak?

Iruñean, 2021eko apirilaren 23an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Sozietateen gaineko zergari buruzkoa.*MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko galdera, Sozietateen gaineko zergari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Gauza ondo jakina da enpresek azken 15 urtetako ekitaldi ekonomikoetako galerak konpentsatzen ahal dituztela sozietateen gaineko zergan.

Galera-kompentsazio horiek enpresa handien zerga-saiheste kalkulazina eragiten dute urtero, zeinaren bidez gure zerbitzu publikoen finantzaketa sendotzen ahalko baitzen zalantzarik gabe.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuari galdetzen diogu ea guztira zenbat egiten duten, kalkuluen arabera, Nafarroako enpresek azken bi urteotan deklaratu dituzten enpresa-galerek.

Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuari orobat galdetzen diogu ea guztira zenbat egiten duten, kalkuluen arabera, azken bi ekitaldi ekonomikoetan Nafarroako enpresek sozietateen gaineko zergan galerengatik eginiko konpentsazioek.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, “Fondo Arraigo” kapital pribatuko eta partaidetza publikoko finantza-tresna sortzeko aholku-zerbitzua kontratatzeari buruzkoa.

ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak aurkezturiko galdera, “Fondo Arraigo” kapital pribatuko eta partaidetza publikoko finantza-tresna sortzeko aholku-zerbitzua kontratatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Sodenak aholkularitza ekonomiko-finantzario eta juridikoko zerbitzua kontratatzeko lizitazioa egin zuen SOD20_0003 espedientearen bidez. Horren helburua zen aztertzea ea komeni zen “Fondo Arraigo” kapital pribatuko eta partaidetza publikoko finantza-tresna sortzea eta garatzea, edo lehendik zegoen beste batean sartzea, ulertuta finantza-tresna hori izaera pribatuko eta partaidetza publikoko arrisku-kapitaleko entitate bat dela, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalen inskribatu beharrekoa eta Sodenaren parte-hartzea izanen duena.

- Zer enpresari esleitu zaio kontratua?
- Kontratuan zer epe ezarri da lanak egiteko?
- Zer prezio ezarri da kontratuan?

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

Galdera, Nafarroako Ubidean basa fauna hiltzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamari-que jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Ubidean basa fauna hiltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Berriro ere salatu da zenbait animalia itota hil direla Nafarroako ubidean, Tafalla eta San Martin Unx bitartean. Oraingo honetan, Tafallako bizilagun batek egin du salaketa, hedabideetan argitaratutako gutun baten bidez:

“Beste behin ere, eta galdu dugu jada zenbatgarrenez salatu dugun gertakari bera (alfer-alferrik ari garelako sentsazioa daukagu), inork ere ez du uste berari dagokionik gure iritziz errazak diren konponbideak jartzea. Ubideko azpiegituraren nahiz ingurumenaren arduradun diren administrazio publikoek ari gara, noski. Edo konponbide bat

emateko gai ez badira (animalia batzuk itota hiltzea inporta ez zaielako, pentsatzen dugu), eman diezaietela baimena hirugarren interesdunei, konponbide bat eman dezaten; Tafallako ehiztariez ari gara zehazki.

Orkatzak aldiro itotzen dira, halaberrez, Tafallako udal-mugaratean; zehazki, Tafallatik San Martin Unxerako tartean eta, bereziki, ubidearen ezkeraldeko sarbide-arrapalan, Portillo del Airetik hurbil, eta arrazoia bat eta bakarra da: orkatzek egarria asetze aldera uretara hurbiltzeko erabiltzen duten arrapala tranpa hilgarria da; izan ere, zementu hain leunez dago eraikia non animaliak ura ukitzen duenean irrist egiten baitu urak sortutako patina irristakorraren erruz, eta zoru irristakor horrek berak eragotzi egiten baitio tranpa hilgarri horretatik ihes egin ahal izatea, non eta hirugarren batek ez dion irteten laguntzen, behin baino gehiagotan gertatu den moduan. Bestela, animaliak orduak eta orduak ematen ditu estu eta larri sufritzen, eta azkenean, nekearen nekeaz, ezinezkoa du salbatzea eta hil egiten da.”

Gauzak horrela, galdera hauek egiten dira:

1.- Nafarroako Gobernuak basafaunako zenbat animalia (orkatzak, basurdeak...) zenbatu du hil direla (itota) Nafarroako Ubidean –bai 1. fasean, bai 1. fasearen zabalpenean–, ubidetik atera ezin izan direlako, arrapalaren hormigoi leuna dela-eta zutik mantendu ezin izateagatik?

2.- Gobernuak ba al du egin beharreko obrak egiteko asmorik (sartu eta irteteko arrapaletan edo gisakoetan aldaketak egitea), edo ubidearen 1. fasea eta 1. fasearen zabalpena kudeatzen duten enpresei obrak horiek egin ditzaten agintzeko asmorik, ubidera erortzen diren animaliak irrist egin gabe bizirik atera ahal izan daitezten?

3.- Gobernuak kalkulatu al du horrenbeste animalia-heriotza ekiditea ahalbidetuko luketen obra horien kostua?

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzuaren konfiguraziorako, berrikuntzarako eta jarraipenerako beharrezkoak diren elementuak eta edukiak sortzeari buruzko aholkuak emateko laguntza teknikoaren kontratuaren 2. fakturari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzuaren konfiguraziorako, berrikuntzarako eta jarraipenerako beharrezkoak diren elementuak eta edukiak sortzeari buruzko aholkuak emateko laguntza teknikoaren kontratuaren 2. fakturari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

1.- Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzuaren konfiguraziorako, berrikuntzarako eta jarraipenerako beharrezkoak diren elementuak eta edukiak sortzeari buruzko aholkuak emateko laguntza teknikoaren kontratuaren 2. faktura 2020ko abenduaren 14an ordaindu zen, nahiz eta kontratuan bertan ezartzen zen “Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzuaren jarraipenerako eta ebaluaziorako gida” ematean eginen zela ordainketa, eta hori ez zen 2021eko otsailaren 15era arte gertatu. Zergatik?

2.- Departamentuak zergatik ez zuen gida hori 2021eko otsailaren 1era arte eskatu, gida emateko epea 2020ko abenduaren 30ean bukatu arren?

3.- Gida emateko epean izandako atzerapen hori kontuan hartu al da hasiera batean adostutako diru kopurua murrizteko?

Iruñean, 2021eko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, parke eolikoan proiektu berrien eskaerei buruzkoa.

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkezturiko galdera, parke eolikoan proiektu berrien eskaerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2030erako Nafarroako Energia Planeko 3.2.1 puntuak ("Parke eolikoak hartzeko mapa taxutzeko ingurumen eta lurralde irizpideak") hiru gaitasun-motatan sailkatzen du Nafarroako Foru Komunitateko lurraldea, hartzeko ahalmen-mailari erreparatuta:

- Gai ez diren eremuak
- Ingurumenaren eta lurraldearen ikuspuntutik mugak dauzkaten eremuak
- Gainontzeko eremuak

Nafarroako Gobernuak parke eolikoak paratzeko 45 eskaera jaso ditu dagoeneko. "la aurrekaririk gabeko igoera" gertatzen ari da parke berriak paratzeko eskaeretan. Parke horien kokagune eta balizko kokalekuak sailkapen horretako lehendabiziko bi motatakoak izanen lirateke 2030erako Nafarroako Energia Planaren arabera:

- Gai ez diren eremuak edo ingurumenaren eta lurraldearen ikuspuntutik mugak dauzkaten eremuak.

Planeko 3.5 eta 3.6 planoetan islatzen dira gai ez diren eremuetarako irizpideak (xehakatuta eta bateratuta).

Horri buruz, parlamentari naizen honek hauxe jakin nahi dut:

- Nafarroako Gobernuak noraino errespetatuko du 2030erako Nafarroako Energia Planeko mapek jasotzen duten sailkapen hori, proiektuen eskabideak izapidetzeko eta ebazteko prozesuetan?
- Nafarroako Gobernuak bete-betean errefusatu al ditu "gai ez diren eremuak" izenekoetan kokatu nahi diren parke eolikoan eskabideak?

Iruñean, 2021eko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

2021eko ekitaldian Garapenerako Hezkuntzako eta Sentsibilizazioko proiektuak egiteko dirulaguntzen deialdia.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nazio Batuen Biltzar Nagusiak Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda onetsi zuen 2015eko irailean. Pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza plan bat da, bake unibertuala sendotzea eta justizia eskuragarri izatea xede duena. Besteak beste, herritartasun globalerako hezkuntza aldetzen du, ahalbidetzeko, besteak beste, lortzea ekitate eta justizia sozialeko balioak, bai eta, halaber, gaitasuna generoan, egoera sozioekonomikoan, kulturen, erlijioan, adinaren eta bestelako faktoreetan oinarritutako desberdintasunak modu kritikoa aztertzeke ere.

SARS-CoV-2 koronabirusaren (COVID-19) agerpenak eta munduan barrena izan zuen hedapenak, munduko bazter guztietan eragin larria izan duen pandemia bilakatu arte, ziurgabetasunez beteriko eremu batean kokatzen gaitu; halaber, 2030 Agendarako ere nahigabeko oztopoa izan da, eta arriskuan jar dezake haren ezarpena, bere helburua lortzeko hamar urte falta direnean.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak uste du aurreko bi ekitaldietako bidetik jarraitu behar duela eta, ahal duen neurrian, lagundu behar duela garapen jasangarrirako helburuak lortzen eta mundu zuzenagoa, baketsuagoa, tolerantagoa, inklusiboagoa eta jasangarriagoa eraikitzen.

Nafarroako Parlamentuko Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak txosten bat taxutu du, 2021eko ekitaldian Garapenerako Hezkuntzako eta Sentsibilizazioko proiektuak egiteko dirulaguntzen deialdia –bai eta kasuko oinarri arautzaileak ere– onesteari begira. Espedientea txosten juridikoarekin eta Kontu-hartzailletzak egindako gastu-fiskalizazioarekin osatu da.

Horiek horrela, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan ezarritakoari

jarraikiz, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak honako hau ERABAKI DU:

1. 2021eko ekitaldian Garapenerako Hezkuntzako eta Sentsibilizazioko proiektuak egiteko dirulaguntzen deialdia onestea.

2. Guztira 57.000 euroko gastua baimentzea, Nafarroako Parlamentuaren 2021eko ekitaldirako gastuen aurrekontuko 48207 “Garapenerako eta elkartasunerako jardueretarako dirulaguntzak” partidaren kargura.

3. 2021eko ekitaldian Garapenerako Hezkuntzako eta Sentsibilizazioko proiektuak egiteko dirulaguntzen deialdiko oinarri arautzaileak onestea.

4. Erabaki hau eta kasuko eranskinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

2021eko ekitaldian garapenerako hezkuntzako proiektuak egiteko dirulaguntzen deialdia arautzen duten oinarriak

Lehena- Xedea eta helburua:

COVID-19aren ondoriozko krisi sanitarioa munduko biztanleria ia guztiari ari zaio erasaten. Gizarte guztien ahuleziaz eta elkarmendekotasunaz oroitarazten digu, eta erantzun globalak ematera behartzen gaitu. Bestalde, aukera ere eman dezake herritarren prestakuntza eta sentsibilizazioa ikuspegi global batetik sustatzeko, pertsona guztiei beren bizilekua gorabehera erasaten dieten mundu-mailako erronken elkarmendekotasunean oinarrituta, haiei aurre egiteko beharrezkoa izaki sektore sozial guztien inplikazioa.

Nafarroako Parlamentuak dirulaguntza-deialdi hau onetsi du, Garapenerako Sentsibilizazio eta Hezkuntzako esku-hartzeak Nafarroan egiteko. Esku-hartzeen helburua izanen da garapen-bidean dauden herrialdeek pairatzen dituzten problemekin zerikusia duten alderdietan eta horien zergatietan sentsibilizatu edo prestakuntza ematea, eta mundu globalizatuari buruzko ulermena erraztea, jarrera kritikoa eta errealtatearekin konprometitu ernaraziz, txirotasunaren aurkako borrokarekiko konpromisoa eta erantzukidetasuna sortuko dituena. Nazio Batuen Batzar Nagusiak Garapen Jasangarrirako 2030eko Agendan onartu dituen Garapen Jasangarriko Helburuetakoren bat garatu beharko dute esku-hartzeek.

Horretarako 57.000 euro bideratuko dira, Nafarroako Parlamentuaren 2021eko ekitaldirako Gastuen Aurrekontuan berariaz onetsitako partida honetatik: 48207 “Garapenaren eta elkartasunaren arloko jardueretarako dirulaguntzak”.

Dirulaguntzei buruzko 11/2005 Foru Legearen 17. artikuluaekin bat etorritz, deialdia norgehiagoka-araubidean izapidetuko da.

Bigarrena- Entitate onuradunak:

Honako betekizun hauek betetzen dituzten entitateak izan ahalko dira dirulaguntzaren onuradun:

- Zein bere izaeraren arabera legez eraturako pertsona juridikoak izatea, eta inskribatuta egotea Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziako Garapenerako Gobernuaz Kanpoko Erakundearen Erregistroan (AECID).

- Nafarroan egoitza soziala edo ordezkari izatea.

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan azaltzen diren egoeretako batean ere ez egotea.

Dirulaguntzei buruzko 11/2005 Foru Legearen 8.3 artikulua arabera, onuradun izan ahalko dira, halaber, elkartuta aurkezten diren entitateak, aurreko paragrafoan adierazitako baldintzak betetzen badituzte eta, betiere, Dirulaguntzei buruzko 11/2005 Foru Legearen 8.3 artikuluan ezarritakoa betetzen badute.

Hirugarrena- Esku-hartzearen betekizunak:

- Helburu gisa edukitzea lehen oinarrian jasotakoa.

- 2021eko ekitaldian exekutatzeta. Hala ere, dirulaguntzaren xede den jarduna ohikotasunez garatzen den urte-aldia ez datorrenean bat aurre-

kontu-ekitaldiarekin –esaterako, ikasturtea–, jarduera horretarako dirulaguntzak urte-aldi horretara moldatzen ahalko dira eta, halakoetan, zilegi izanen da jarduera 2022ko ekainaren 30erako amaitzea.

- Jarduerak Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-eremuan garatuko dira.

- Nafarroako Parlamentuak diruz lagundu beharreko gehieneko zenbatekoa: 11.000 euro.

Esku-hartzearen garapena eraldatu edo zailtzen duten gorabeherak gertatuz gero, zilegi izanen da harduera horiek egiteko epeak luzatzea. Horretarako, Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean (erregistroa@nafarroakoparlamentua.eus) eskabide-orri bat aurkeztu beharko da, Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuari zuzendua, epea luzatzea eskatu eta azaltzen dituen esku-hartzea hasiera batean aurreikusitako epean gauzatu ezinaren arrazoiak. Edonola ere, jarduerak egiteko gehieneko epea 2022ko ekainaren 30ean amaituko da.

Laugarrena- Dirulaguntzen bateragarritasuna:

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak dira jarduera garatzeko lor daitezkeen beste batzuekin, eta emaitza izan daitezke administrazio publikoak, beste erakunde publiko edo pribatu batzuk nahiz partikularrak, nazionalak edo nazioartekoak.

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak, bere horretan edo beste erakunde publiko eta pribatu batzuetatik jasotako beste laguntza edo dirulaguntza batzuekin batera, ezin izanen du ezin kasutan gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua.

Bosgarrena- Eskaerak aurkeztea:

Entitate eskatzaile bakoitzak gehienez eskaera bat aurkeztu ahalko du. Eskaeratzat zenbatuko dira bai bakarka aurkeztutakoak bai entitate-elkarre baten parte izanik aurkeztutakoak. Baldin eta entitate batek bakarkako eskaera bat eta beste entitate batzuekiko elkartean eginiko beste eskaera bat aldi berean aurkezten baditu, bi eskaera horiek deialditik kanporatuak izanen dira.

Eskaera Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean aurkeztuko da, edo Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako erregistroetatik edozeinetan, gehienez ere 15 egun balioduneko epean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita.

Nafarroako Parlamentuko Erregistroan aurkezteko, seigarren oinarrian adierazitako dokumenta-

zioa posta elektronikoz bidez igorri beharko da, digitaal sinaturiko Nafarroako Parlamentuko eskabide orokor batez lagunduta, honako helbide honetara: erregistroa@nafarroakoparlamentua.eus

Nafarroako Parlamentuko eskabide orokorra Nafarroako Parlamentuaren webgunetik deskargatu daiteke: <https://www.parlamentodenavarra.es/es/contactar>

Seigarrena - Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Eskabide orokorarekin batera, entitate eskatzaileek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

I) Dokumentazio orokorra:

a) Deialdian adierazitako eredu (I. eranskina) erabili behar da dirulaguntzaren eskaera egiteko, eta bertan entitate eskatzaileak adierazi behar du bigarren oinarrian ezarritako betekizun guztiak betetzen dituela.

b) Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziako Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundearen Erregistroan egindako inskripzioaren ziurtagiria, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean dagoen ordezkartzaren edo egoitzaren aipamenarekin. Deialdi hau argitaratu baino urtebete lehenago jaulkitakoa izan behar da gehienez ere.

c) Erantzukizunpeko adierazpena, non ziurtatuko baita ezen entitate eskatzaileak bete egiten dituela erakunde onuraduna izan ahal izateaz 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluan ezarritako betekizunak (II. eranskina).

d) Entitate-elkarteen kasuan, entitate bakoitzaren dokumentazioaz gain, honako hauek aurkeztuko dira:

d.1) Entitate-elkarteen eratze-agiria. Elkartek nortasun juridiko berekirik ez badu, eratze-agirian espresuki izendatua agertu beharko da ahalordedun edo ordezkari bakarra, elkartek onuradun gisa izan behar dituen betebeharrak betetzeko ahalorde nahikoak izan behar dituen, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean aurreikusitako preskripzio epea amaitu arte elkartea ez desegiteko konpromisoa ere agertu beharko da.

d.2) Honako hau azaltzen duen agiria: elkarreko entitate bakoitzak proiektuaren exekuzioan zer funtzio eta eginkizun hartuko dituen bere gain, elkarreko izenean eta haren kontura; eta elkarreko entitate bakoitzari aplikatuko zaion dirulaguntzaren zenbatekoa.

e) Transferentzia bidez ordaintzeko eskaera.

f) Dirulaguntza garaiz aurretik ordaintzea zilegi den kasuetako entitateei dagokienez, 9.1 oinarrian adierazitako dokumentazioa aurkeztuko da.

Eskaerak ez baditu ezarritako betekizunak betetzen, interesdunari aginduko zaio gehienez hamar eguneko epean akatsa zuzendu dezan edo aginduzkoak diren dokumentuak aurkez ditzan. Ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egintzat joko dela, aurrez ebazpena emanda. Ebazpen hori Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritako moduan eman beharko da.

II Baloraziorako dokumentazioa:

A) Bideragarritasuna.

a) Azken lau urteetan administrazio publikoek finantzatutako Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazio proiektuen zerrendadun taula (III. eranskina).

b) III. eranskinean adierazitako dirulaguntzak emateko ebazpenaren kopia.

B) Esku-hartzeari buruzko oroitidazki teknikoa. Berdintasunaren aldeko eta bazterketaren kontrako hizkera erabiliz idatzi beharko da. Pertsonen buruzko datu guztiak sexuaren arabera bereizita egon beharko dute.

C) Esku-hartzeari buruzko oroitidazki ekonomikoa (kalkulu-orrian).

Oroitidazki teknikoa eta ekonomikoa IV. eranskinean jasotako datu-orriari jarraikiz aurkeztuko dira.

Zazpigarrena - Dirulaguntza emateko prozedura antolatze, instruitze eta ebazteko eskumena duten organoak:

Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Juridikoetako, Zerbitzu Orokorretako eta Kontu-hartzaitza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuetako teknikariek osatutako balorazio-batzordeak antolatuko du prozedura. Kide anitzeko organo horrek ebaluatuko ditu eskaerak, eta haren irizpena loteslea izan behar da.

Nafarroako Parlamentuko Kontu-hartzaitza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzua izendatzen da instrukzio organo. Instrukzio organoak, eskaeren ebaluazioa ikusirik, ebazpen proposamena egiten du.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak berriaz hartutako erabakiaren bidez ebatziko da

dirulaguntzak emateari buruz, instrukzio organoak proposatutako txostena oinarri hartuta.

Eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik hiru hilabete igarotakoan ebazpen espresurik jakinarazi ez bada, eskaera ezetsi dela ulertu ahalko da.

Zortzigarrena. Entitate onuradunen betebeharrak.

Dirulaguntza jasotzen duten entitateek betebeharrak izanen dituzte:

a) Esku-hartzea eskaeran deskribatu duten moduan egitea.

b) Betekizunak eta baldintzak betetzen dituzte-laguntza frogatzea Nafarroako Parlamentuko Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuari.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko beste laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzen badituzte, jakinaren gainean jartzea Nafarroako Parlamentuko Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzua.

d) Dirulaguntza emateko ebazpena ematen den unean egunean edukitzea beren zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

e) Nafarroako Parlamentuarekin elkarlanean proiektuaren berri zabaltzea, Nafarroako iritzi publikoa garapenerako lankidetzari buruz sentikortzeko.

Egoera sanitarioak ahalbidetzen baldin badu, entitate onuradunei dei egiten zaie Nafarroako Parlamentuak egiten duen ekitaldi publiko batean parte har dezaten. Ekitaldi horretan, entitate onuradun guztiek dirulaguntza duen proiektuaren exekuzioa aurkeztuko dute.

f) Jarduerak egiteko erabiltzen dituzten baliabideetan eta materialetan agerraraztea Nafarroako Parlamentuak finantzatuta egiten direla jarduerak.

g) Organo emaileak egiaztapen eta kontrol jarduketak egin ditzan onartzea.

h) Jasotako funtsak zertarako erabili diren frogatzen duten agiriak gordetzea, egiaztapen eta kontrol jarduketetarako beharrezkoak izan daitezkeen bitartean.

i) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 35. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako funtsak itzultzea.

j) Entitate onuradunak eman zaion dirulaguntzari uko egitea erabakiz gero, bi hilabeteko epean egin beharko du uko, laguntza eman zaiola jakinarazi zaion egunetik zenbatuta. Uko egitea Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuari

zuzenduko zaio, Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean (erregistroa@nafarroakoparlamentua.eus) aurkeztutako idazki baten bidez. Hamaikagarren oinarrian eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu arren aurrekontuan diru erabilgarri aski ez egoteagatik laguntzarik eskuratu ez duten proiektuei esleitzen ahalko zaie uko eginiko zenbatekoa.

Bederatzigarrena - Dirulaguntzaren aurrerakina, ordainketa eta justifikazioa:

1. Dirulaguntzei buruzko 11/2005 Foru Legearen 33. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, baliabide nahikorik ez izatea behar bezala frogatzen duten entitateen kasuan, dirulaguntzaren ordainketa bakarra eta aurreratua egiten da deialdi hau ebazten den unean, diruz lagundutako jarduera behin-behineko finantzatzeko.

Horretarako, eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioari erantsita, entitatearen edo elkartearen ordezkariak sinatutako ziurtagiria aurkeztu beharko da, jarduera egiteko baliabide nahikorik ez dagoela adieraziko duena.

Gainerako entitateei, diruz lagundutako proiektua amaitutakoan ordainduko zaie dirulaguntza. Aldez aurretik, entitate onuradunak justifikatu egin beharko du egindako jarduera.

2. Esku-hartzea amaitu eta gehienez ere ondoko hilabetean aurkeztuko da justifikaziorako dokumentazioa, eta honako agiri hauek bilduko ditu:

- Esku-hartzearen oroitidazki teknikoak, dagozkion egiaztapen-iturriekin, hala behar denean.

- Oroitidazki ekonomikoak. Bertan esku-hartzearen aurrekontu-betetzea azalduko da, egindako jarduerak eta haien kostua adieraziz.

- Egindako gastu guztien egiaztagiria. Gastuak frogatzeko, fakturak eta ordainagiria aurkeztuko dira, edo gainerako frogagiri baliokideak, merkataritzako trafiko juridikoan baliozkoak direnak edo eraginkortasun administratiboa dutenak. Jatorrizkoak izan beharko dute. Instrukzio organoak eginbide-zigilua jarriko die, eta bertan adieraziko da Nafarroako Parlamentuak finantzatu dituela jarduerak.

- Berariazko adierazpena: ea proiektuak beste laguntza edo dirulaguntzarik jaso duen, eta, baiezkoan, jasotako zenbatekoen eta horien iturrien xehetasunak.

Aurkeztutako agirietan oinarrituta, balorazio-batzordeak egin den jardunari eta horren justifikazioari buruzko txosten bat bidaliko dio instrukzio-organuari. Txosten horri jarraikiz, instrukzio-organok proposamena egiten dio

Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, exekutaturiko ekintzaren justifikazioa onets dezan, kasua bada justifikazioa onets eta ordainketa agin dezan, edo bestela itzulketa-espeditente bati ekitea proposa dezan, Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 35. artikulua ezarritakoaren arabera.

Dirulaguntza egiazki ordaintzeko, beharrezkoa izanen da entitateak aurkeztua izatea transferentzia-abonua eskatzeko agiria, diru-sarrera egin behar den banku-entitateak datuz behar bezala beteta.

Hamargarrena - Dirulagungarri diren gastuak:

- Dirulagungarri diren gastutzat jotzen dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuteaz gain jarduera hura burutzeko ezarritako epearen barruan egiten direnak. Gastu dirulagungarrien eskuratzeko-kostua ez da inoiz izanen merkatuko balioa baino handiagoa.

- Deialdi honi dagokionez, ez dira gastu dirulagungarritzat joko inbertsio gastuetara bideratutako diru kopuruak, ez eta zeharkako kostuak edo kudeaketa kostuak ere.

Hamaikagarrena - Balorazio-irizpideak

Eskaerak 0 eta 100 puntu bitarteko eskalan baloratuko dira, irizpide hauei jarraituz:

I. Esku-hartzearen bideragarritasuna (gehienez 30 puntu).

a) Azken lau urteetan administrazio publikoek finantzatuak izan diren garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioko proiektuak exekutatzeko entitate eskatzaileak izandako esperientzia baloratuko da. Proiektuaren kopurua eta haien zenbatekoa hartuko dira kontuan.

– 1 - 4 proiektu bitarte: 2,5 puntu.

– 5 - 7 proiektu bitarte: 5 puntu.

– 8 - 10 proiektu bitarte: 8 puntu.

– 10 proiektu baino gehiago: 12 puntu.

Exekutaturiko esku-hartzeen zenbatekoa:

– 0 - 8.000 euro bitarte: 2,5 puntu.

– 8.001 - 30.000 euro bitarte: 5 puntu.

– 30.001 - 80.000 euro bitarte: 8 puntu.

– 80.000 euro baino gehiago: 12 puntu.

Bi apartatu horietan lorturiko puntuazioa 1,25ekin biderkatuko da, baldin eta esku-hartzea Nafarroako Parlamentuak aurreko bi ekitaldietako edozeinetan finantzatua izan bazen.

Balorazioa egiteko, proiektu exekutatuak III. eranskina edatuz betez deklaratu beharko dira (eranskin horretan adierazitako informazioaz bestelakoak ez dira kontuan hartuko). Gainera, deklaraturako jarduketek puntuak izan ditzaten, haien frogagiriak helarazi beharko dira, haien ebazpenaren kopia edo dokumentu baliokidea atxikiz.

II. Pertinentzia (10 puntu gehienez):

Proiektuak zer-nolako ekarpena egiten dion Covid-19aren pandemia eremu geografiko eta sozial ezberdinetan izandako eragin sozial eta ekonomikoaren ulermenari; batik bat, zaurgarritasun handieneko egoeran dauden pertsonen dago-kienez. Helburua da pandemiari aurre egiteko elkartasun-jarduerak, herritarren erantzukidetasunekoak eta indartze sozialekoak sustatu eta garatzea.

III. Proiektuaren kalitatea (45 puntu, gehienez):

a) Proiektua gauzatuko den egoeraren eta ingurunearen azterketa: (10 puntu, gehienez).

b) Helburuaren, emaitzen eta jardueren koherentzia: (10 puntu, gehienez).

c) Adierazleak eta egiaztapen-iturriak: (10 puntu, gehienez).

d) Herritarrek parte hartzea eta boluntariotza sustatzea: (5 puntu, gehienez).

e) Genero-ikuspegia jasotzea (10 puntu, gehienez).

Proiektua lagungarria da emakumeen eta haiek munduan duten kokalekuaren ikusgaitasunerako; gaitasunen sendotzea eta emakumeen autonomia sustatzen ditu.

IV. Aurrekontuaren deskribapena: (15 puntu, gehienez).

– Aurrekontua deialdian jasotakoari egokitzea: (5 puntu, gehienez).

– Gastu-beharren justifikazioa: Giza baliabideak, baliabide materialak... (10 puntu, gehienez).

Ez dira baietsiko 50 puntu baino gutxiago lortzen dituzten eskaerak.

Eskatutako dirulaguntza bera emanen da. Lehenetsun-ordena ezarriko da lortutako puntu kopuruaren arabera, eta dirulaguntzak esleitu-ko dira harik eta aurrekontu-izendapenaren mugara iritsi arte. Prozedura horren arabera dirulaguntza lor dezakeen azken proiekturako eskatutako diru kopurua handiagoa bada haren finantzaketarako eskueran dagoen diru kopurua baino, instrukzio organoak zilegi izanen du, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005

Foru Legearen 20. bis artikuluan ezartzen denari jarraituz, onuraduna premiatzea bere eskaera birformula dezan, konpromisoak eta baldintzak eman daitekeen dirulaguntzara doitzeko.

Hamabigarrena - Errekurtsoak:

Deialdi hau oinarri arautzaile hauen bidez eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritakoaren bidez arautzen da.

Deialdi honen aurka errekurtso hauek jartzen ahalko dira:

– Aukerako berraztertze-errekurtsoa, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari zuzendua, hilabeteko epean, deialdi hau argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

– Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko arlo horretako salan, bi hilabeteko epean, deialdi hau argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

I. eranskina

GARAPENERAKO HEZKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO PROIEKTUETARAKO
DIRULAGUNTZAREN ESKAERA. 2021EKO EKITALDIA.

Izen-abizenak		NAN	
Hau ordezkutzen dut:		IFZ	
Helbidea	Posta kodea	Herria	
Telefonoa	Posta elektronikoko helbidea		
Esku-hartzearen izena			Non egingen den
Eskatutako zenbatekoa	Kostua, guztira	Exekuzio epea	
Ordainketa aurreratua eskatzen dut (bai/ez)			
Nafarroako Parlamentuak 2019an edo 2020an diruz lagundutako esku-hartzea (bai/ez)			

2021ean zehar garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazio proiektuak egiteko dirulaguntzen deialdian ezarritakoarekin bat (_____ko _____aren ___(e)ko ___ NAO).

Bertan ezarritako betekizunak betetzen ditut.

Eskatzen dut aintzat har dadila eskaera hau, honako agiri hauekin batera:

I Dokumentazio orokorra:

– Entitate eskatzailearena:

- Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziak daukan GGKEen Erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria, deialdia argitaratu baino urtebete lehenago eginga gehienez ere, non aipatuko baita Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean kokatuta dagoen ordezkaritza edo egoitza.
- Erantzukizunpeko adierazpena (II. eranskina):
- Transferentzia bidez ordaintzeko eskaera.

– Entitateen elkarte izanez gero, aurreko puntuan adierazitakoez gain:

- Eratze-agiria.
- Funtzioei, eginkizunei eta zenbatekoari buruzko agiria.

– Dirulaguntza aurretiaz ordaintzeko betekizunak betez gero:

- 9.1 oinarrian adierazitako agiriak

II Baloratzeko dokumentazioa:

- A) Bideragarritasuna.
 - Azken lau urteetan administrazio publikoek finantzatutako Garapenerako hezkuntza eta sensibilizazio proiektuen zerrendadun taula. (III. eranskina)
 - III. eranskinean zehazturiko Garapenerako hezkuntza eta sensibilizazio proiektuak aurrera eramateko dirulaguntzak ematen dituen ebazpenaren kopia.
- B) Esku-hartzearen oroitidazki teknikoa (IV. eranskina).
- C) Oroitidazki ekonomikoa (IV. eranskina).

Sin.

Iruñean, 2021ekoaren(e)(a)n.

A/ NAFARROAKO PARLAMENTUA**INFORMAZIOA ETA ADOSTASUNA (Europako 2016/679 Erregelamendua, datu pertsonalen babesari buruzkoa, eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa).**

Aipatutako araudia betez, honako hauen berri ematen da, dirulaguntza-deialdi honetan parte hartzearen Nafarroako Parlamentuari emandako informazioa dela eta:

Arduraduna eta helburua: Nafarroako Parlamentuak tratatuko ditu datu pertsonalak, eta “**Kontabilitatea eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa**” izeneko tratamendu sisteman sartuko dira, dirulaguntza-espeditenteen kudeaketa administratiboa xede bakarra izanda.

Legitimazioa: Helburua oinarritzen da legezko betebeharraren baten betetzean eta Nafarroako Parlamentuaren ahal publikoen egikaritzean, funts juridikoa honako hau izanda:

- 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, Nafarroako dirulaguntzei buruzkoa.
- Nafarroako Parlamentuaren 2012ko Kontabilitate Plan Orokorra, egokitua Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra onesten duen apirilaren 13ko EHA/1037/2010 Aginduari (2010eko apirilaren 28ko 102. EAO).
- Nafarroako Parlamentuaren erregelamendu ekonomiko-finantzarioa, 2020ko urtarrilaren 27koa. (2020-02-07 NPAO)

Eskubideak: Horrekin batera, hau ere jakinarazten dizugu:

- Nafarroako Parlamentuari eskatzeko eskubidea duzu zure datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu edota lekualdatzeko, mugatzeko eta haien tratamendua errefusatzeko, bidezkoa denean. Nafarroako Parlamentuan (Navas de Tolosa kalea 1, 31002 Iruña) edo posta elektronikoko dpd@parlamentodenavara.es helbidean eska dezakezu.
- Eskubidea duzu zure datuen babesari buruzko erreklamazioa aurkezteko Datuak Babesteko Bulegoan.

Kontserbazioa: Datuak gordeko dira Nafarroako Parlamentuko Artxiboaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko Arauetan xedatutakoari jarraituz. Arau horiek 2000ko maiatzaren 15ean onetsi zituen Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, eta 2000ko ekainaren 8ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

II. eranskina.

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Honen bidez, jaunak/andreak (NAN zenbakia:),
..... ordezkatuz

Honako hau adierazten dut nire erantzukizunaren pean:

Ordezkatzen dudan entitatea ez da honako ezein egoeratan erortzen:

- a. Epai irmoz zigortua izana dirulaguntza edo laguntza publikorik jaso ezin izatera.
- b. Konkurtso-deklarazioa eskatu izana, kaudimengabezia-deklarazioa jaso izana edozein prozeduratan, konkurtsoan egotearen deklarazioa jaso izana, esku-hartze judizialaren pean egotea, edo desgaituntza jaso izana Konkurtso Legearen arabera, amaitu gabe egonik konkurtsoa kalifikatu duen epaian zehazturiko desgaituntza-aldia.
- c. Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin izana, suntsiarazpen horren kausaren errudun deklaratu izanik.
- d. Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariek araudi indardunean ezarrita dagoen bateraezintasun-kasuren batean egotea.
- e. Ordaindu gabe edukitzea zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak edota Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari edo haren erakunde autonomoei ordaindu beharreko zorreatatik betebeharra.
- f. Egoitza fiskala paradisu fiskaltzat kalifikatuta dagoen herrialde edo lurralde batean edukitzea.
- g. Ebazpen irmoz zehatua izatea ezin dirulaguntzarik jasotzera, betiere jarraiturik dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeari, tributu-legedi orokorrari edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko legediari. Ez dute onuradun-izaera lortzerik izanen foru lege honen 9. artikuluko 2. apartatuan aipatutako elkarteek, haien kideetako edozein egonez gero aurreko debekuetakoren baten pean”.
- h. Elkartea izanez gero, Elkarteko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan ezarritako debekuen pean egotea, eta inskribatzeko administrazio-prozedura etenik edukitzea, arau-hauste penalaren zantzu arrazoizkoak egoteagatik, aipatutako lege organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuta, kasuko erregistroan inskribatzea ahalbidetzen duen ebazpen judizial irmoa jaulkitzen ez den bitartean.

Halaber, adierazten dut baditudala hori guztia frogatzen duten agiriak, eta Nafarroako Parlamentuaren esku jarriko ditudala hala eskatzen zaidanean.

Sin.

Iruñean, 2021ekoaren(e)(a)n.

Erantzukizunpeko adierazpen batean sartutako edozein datu edo informazio funtsean okerra edo faltsua izanez gero, edo funtsezkoa den baten bat bertan jaso ezean, edo erantzukizunpeko adierazpena administrazio eskudunari aurkeztu ezean, orduan, adierazitakoa betetzen dela frogatze aldera kasua bada eskatzen den dokumentazioak edo komunikazioak erakarriko dute ezinezkoa izatea erasandako eskubide edo jarduna egikaritzen jarraitzea halako zertzeladak egiazaturik gertatzen diren unetik aurrera, ezertan galarazi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

III. eranskina.

**GARAPENERAKO HEZKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO PROIEKTUETARAKO
DIRULAGUNTZAREN ESKAERA. 2021EKO EKITALDIA.**

Izen-abizenak		NAN	
Hau ordezkutzen dut:		IFZ	
Helbidea	Posta kodea	Herria	
Telefonoa	Posta elektronikoko helbidea		

Azken lau urteetan administrazio publikoek finantzaturako Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazio proiektuak:

Esku-hartzearen izenburua	Betetze aldia	Zenbatekoa	Finantzatzailea
1.			
2.			
3.			
4.			
5.			
6.			
7.			
8.			
9.			
10.			
11.			
12.			
13.			
14.			
15.			
16.			

Eranskin honetan deklaraturiko proiektuak bakarrik hartuko dira kontuan. Hamaikagarren oinarrian ezartzen den bezala, balioetsiak izateko beharrezko dute dokumentuz frogatuta egon.

Sin.

Iruñean, 2021ekoaren(e)(a)n.

IV. eranskina. DATU-ORRIA.

Entitate eskatzailea	IFZ	Helbidea	
Posta elektronikoko helbidea	Telefonoa	Ordezkarria	
Esku-hartzearen izena		Non egingen den	
Exekuzio epea	Eskatutako zenbatekoa	Kostua, guztira	
Ordainketa aurreratua eskatzen dut (bai/ez)			

OROITIDAZKI TEKNIKOA**1. Esku-hartzearen deskribapena:**

Egin beharreko esku-hartzearen laburpena. Hauek azaldu behar dira:

- a) Egoeraren azterketa. Esku-hartzearen arrazoia.
- b) Helburuak, emaitzak eta jarduerak. Jardueren deskribapena.
- c) Adierazleak eta egiaztapen-iturriak.

Oroitidazki ekonomikoa

Aurrekontua kalkulu-orri batean egingen da, beheko taulan adierazitakoa jasoz.

Osagarri gisa, aurrekontuaren azalpen laburra emanen da, gastu partida desberdinak deskribatuz eta justifikatuz.

Zuzeneko kostuak			
Gastu partida	Jarduera	Zenbatekoa	Finantzatzailea
Materialak eta hornidurak			
Langile-gastuak			
Bidaiak, egonaldiak eta dietak			
Beste batzuk (adierazi zein)			

Ponentzia, Nafarroako kultur jarduera duintzeko, egonkortzeko, areagotzeko eta haren etorkizuna bermatzeko neurriak zehaztu eta adostearren.

BARNE-FUNTZIONAMENDURAKO ARAUAK

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen "Nafarroako kultur jarduera duintzeko, egonkortzeko, areagotzeko eta haren etorkizuna bermatzeko neurriak zehaztu eta adostearren ponentziaren barne-funtzionamendurako arauak", zeinak ponentziak berak onetsi baitzituen 2021eko apirilaren 28an egindako bilkuran. Hona testua:

Lehena.- Ponentziaren xedea da Nafarroako kultur jarduera duintzeko, egonkortzeko, areagotzeko eta haren etorkizuna bermatzeko neurriak zehaztu eta adostea.

Behin txostena eginda, Legebiltzarreko Mahaiari igorriko zaio, aurkez litezkeen boto partikularrekin batera; eta Mahaiak Batzordeko kideei bidaliko die, eztabaidatu eta bozkatzeko.

Bigarrena.- Hona ponentzia osatuko duten foru parlamentarien zerrenda:

Raquel Garbayo Berdonces (Navarra Suma).
Ordezkoa: Alberto Bonilla Zafra jauna

Carlos Mena Blasco (Nafarroako Alderdi Sozialista).
Ordezkoa: Jorge Aguirre Oviedo jauna

Ana Isabel Ansa Ascunce (Geroa Bai).
Ordezkoa: Pablo Azcona Molinet jauna

Maiorga Ramírez Erro (EH Bildu Nafarroa).
Ordezkoa: Arantxa Izurdiaga Osinaga andrea

Mikel Buil García (Podemos Ahal Dugu Nafarroa).
Ordezkoa: Ainhoa Aznárez Igarza andrea.

María Luisa De Simón Caballero andrea
(Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoa).

Hirugarrena.- Ponentziak Carlos Mena Blasco jauna hautatu du lehendakari. Ponentziako idazkari-lanetan jardunen da ponentziari laguntzen dion legelaria, edo haren ordezkoa.

Laugarrena.- Ponentziak boto ponderatuko sistemaren bidez hartuko ditu erabaki guztiak. Horrela, ponentziako eledun-kide bakoitzaren talde parlamentarioak edo foru parlamentarien elkarteak zenbat parlamentari dituen, horrenbeste boto edukiko ditu eledun-kide horrek ponentzian.

Bosgarrena.- Ponentziak laguntza eta lankidetzara eskatu ahalko dio Nafarroako Gobernari, eta, Legebiltzarreko Lehendakariaren bidez, kargu eta funtzionario eskudunak ponentziara etor daitezkeen eskatu ahalko du, edo beharrezkoak diren txostenak egin daitezkeen. Orobat eskatu ahalko du arloko beste aditu batzuk ere etor daitezkeen.

Seigarrena.- Ponentziak lanerako plana ezarriko du, eta erabaki du 2021eko maiatzaren 12an 12:00etan bukatuko dela lan-proposamenak aurkezteko epea. Plan horren berri emanen zaio Legebiltzarreko Mahaiari.

Zazpigarrena.- Ponentziak agindu zaion lana bukatu arte egingen du lan, eta lan hori, printzipioz, 2021eko ekainaren 28rako bukatu beharko du.

Zortzigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea".

Iruñean, 2021eko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko.

Lanpostua bete gabe gelditu da

Lehendakari honek 2020ko ekainaren 26an emandako ebazpenaren bidez, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez eta txanda irekian betetzeko deialdia onetsi zen. Deialdiaren testua Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean urte horretako uztailaren 17an argitaratu zen.

Kalifikazio epaimahaia eratu, lehiaketaldia baloratu eta lehenengo ariketa egin ondoren, 2021eko apirilaren 12an oposizioaldiko bigarren ariketa egin zen, non epaimahaiak jarritako auditoretza publiko edo/eta pribatuko kasu bat edo batzuk ebatzi behar baitziren. Apirilaren 19an, kalifikazio epaimahaiak ariketaren emaitzak argitaratu zituen, eta izangai bakar batek ere ez zuen lortu ariketa gainditzeko eskatutako gutxieneko puntuazioa.

Horrenbestez, deialdiaren oinarriekin bat, epaimahaiak, 2021eko apirilaren 26an, proposatu du lanpostua bete gabe gelditu dela deklaratzeko, izangai bakar batek ere ez baitu gainditu proze-

sua. Hortaz, lehendakaritza honek, dagozkion ahalmenak eta eskumenak erabiliz,

EBATZI DU:

Lehena.– Bete gabe uztea Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez eta txanda irekian betetzeko deialdia, lehendakari honen 2020ko ekainaren 26ko ebazpenaren bidez onetsi zena, izangai bakar batek ere ez baitu gainditu oposizioaldiko bigarren ariketa.

Bigarrena.– Bete gabe gelditu den auditore lanpostu hori deialdi berri batean eskain dadila xedatzea, indarreko araudian ezarritakoarekin bat.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta erakundearen webgunean argitara dadila agintzea, eta, orobat, Kontuen Ganberako idazkari nagusiari jakinaraztea, haren berri izan dezan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Kontuen Ganberako lehendakaria: Asunción Olaechea Estanga

